

02 FEB. 2022

SARRERA/ENTRADA IRTEERA/SALIDA

ZK/Nº

ZK/Nº

4020

Jasotzailea / Receptor

Tokia eta data / Lugar y fecha
Bilbo, 2022ko urtarrilaren 28an

DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y
DESARROLLO TERRITORIAL
DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO
TERRITORIAL

Zure aipamena / Su referencia
OT-001-2016

Cl. Ibañez de Bilbao, 20

Gure aipamena / Nuestra referencia
AO-409-2021

48009 BILBAO

Gaia/Asunto:

TXOSTENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAK
BILBO METROPOLITARREKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN
BERRIKUSPENAREN HASIERAKO ONESPENARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.

INFORME SOBRE LA CONSULTA DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL DE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA RESPECTO A LA APROBACIÓN INICIAL DE LA REVISIÓN DEL PTP DEL
ÁREA FUNCIONAL DE BILBAO METROPOLITANO

Goiburuan aipatzen den gaia dela eta,
honekin batera bidaltzen dizut horri
buruzko txostena.

En relación al asunto de referencia, adjunto
le remito informe elaborado al respecto.

Adeitasunez, agur.

Atentamente

- 4 FEB 2022

IRTEERA / SALIDA

Zk. / Nº

SARRERA / ENTRADA

Zk. / Nº

1371

G05

100-100000

100-100000

100-100000

100-100000

100-100000

GAIA: Txostena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenaren hasierako onepenari buruz egindako kontsultari buruzkoa. (AO 409-2021)

ASUNTO: Informe sobre la consulta de la Dirección General de Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia respecto a la aprobación inicial de la revisión del PTP del área funcional de Bilbao Metropolitano. (AO 409-2021)

1. – Aurrekariak eta gogoetak

2021eko urriaren 22an aipatutako eskaera jaso zen Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuan.

2018ko ekainaren 9an, Lurralde Plan Partzialaren aurrerapenari buruzko lehen txosten bat egin zuen Ondare Naturala zaintzeko Zerbitzuak (AO 28-2018). Dokumentu horretan zenbait gairen berri eman zen, eta, naturagune babestuen eta espezie mehatxatuen kudeaketaren arloan eskumena duen foru zerbitzu honen iritziz, garrantzitsua zen lantzen ari ziren LPPren dokumentazioan eta araudian sartzea.

Orain igorritako Lurralde Plan Partzialaren hasierako onepen-dokumentua aztertu ondorik, lehenik eta behin, nabarmendu behar dugu ziurrenik ingurumen-gaiak eta ingurune naturalari buruzkoak hobekien aztertu eta landu dituen LPPetako bat dela.

Nolanahi ere, ondare naturalaren arloko ingurumen-ikuspegi hori osatzeko, beharrezkoa da dokumentuetan aldaketa txiki batzuk egitea, eta, bereziki, antolamendu-arauen dokumentuan eta antolamendu-planoetan; izan ere, zerbitzu honen aurretiko ekarpen batzuk ez dira LPPren dokumentuetan sartu.

1. – Antecedentes y consideraciones

Con fecha 22 de octubre de 2021, se recibe en el Servicio de Patrimonio Natural la solicitud de referencia.

Con fecha 9 de junio de 2018 fue emitido un primer informe (AO 28-2018) sobre el avance del PTP, por parte de este Servicio de Patrimonio Natural. En dicho documento se informaron determinadas cuestiones que a juicio de este servicio foral competente en gestión de espacios naturales protegidos y especies amenazadas, era importante que fueran incorporadas a la documentación y normativa del PTP en elaboración.

Analizado el documento de aprobación inicial del PTP ahora remitido se observa en primer lugar y así debemos ser destacarlo que se trata, probablemente, de uno de los PTPs que mejor ha analizado y trabajado las cuestiones ambientales y de medio natural.

En todo caso, con el fin de completar dicha visión ambiental en materia de patrimonio natural es necesario incluir pequeñas modificaciones en los documentos y en particular, en el documento de normas de ordenación y en los planos de ordenación ya que algunas aportaciones previas de este Servicio no han sido incorporadas a los documentos del PTP.



Lurralde Plan Partzialeko dokumentuetan sartu ez diren gaien artean, naturagune babestuak eta gaur egun badiren naturaguneak egoki sartzea dago, bai eta Natura 2000 Sareko naturagune eta eremu horien konektibitate ekologikoa ere. Aipatu diren gai horiek interpretatzeko eta kudeatzeko eskumena du foru zerbitzu honek.

2.- Ondorioak

2.1.- Ondare Naturala zaintzeko Zerbitzu honek, bere eskumenekoak diren funtzioei dagokienez eta hasierako onespeneren ondoreetarako, Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialaren hasierako onespeneren dokumentuari buruzko txosten negatiboa ematen du. Txosten honen izaera negatiboa mantenduko da naturagune babestuei eta espezie mehatxatuak buruzko gaiak eta beharrezko aldaketak konpontzen eta behar bezala txertatzen ez diren bitartean.

2.2. Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialak ez du bere "lurralde-antolamenduaren ereduaren helburu estrategikoa" betetzen (b: antolamendu-arauak dokumentuaren 11. artikulua), ez baitu bermatzen azpiegitura berdearen funtsezko elementuen jarraitutasun ekologikoa, hala nola Natura 2000 Sareko bi espazioa, hots, Astondoko dunen KBEarena eta Barbadungo itsasadarraren KBEarena.

2.3. Antolamendu-arauen dokumentuan eta antolamendu-planoetan sartu beharreko gaiak, Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean dauden naturagune babestuen lotura ekologiko egokia eta natura-ondarearen balioen babesa bermatzeko.

2.3.a.- Espezie mehatxatuak babesteari

Entre las cuestiones que no han sido incorporadas a los documentos del PTP se encuentra la adecuada inclusión de espacios naturales protegidos y áreas naturales existentes, así como la conectividad ecológica de dichos espacios y áreas naturales de la Red Natura 2000, cuestiones en las que este Servicio Foral es competente para su interpretación y gestión.

2.- Conclusiones

2.1.- Este Servicio de Patrimonio Natural emite, en relación a las funciones que son de su competencia y a los efectos de su aprobación inicial, un informe negativo respecto al documento de aprobación inicial del PTP del Bilbao Metropolitano. El carácter negativo de este informe se mantendrá en tanto en cuanto no sean solventadas e incorporadas adecuadamente las cuestiones y modificaciones necesarias referidas a espacios naturales protegidos y especies amenazadas.

2.2. El Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano no cumple su propio "objetivo estratégico del modelo de ordenación territorial" (art. 11. del documento B: normas de ordenación), pues no garantiza la continuidad ecológica de elementos fundamentales de la infraestructura verde como son los dos espacios de la Red Natura 2000, ZEC dunas de Astondo y ZEC ría de Barbadun.

2.3. Cuestiones a incluir en el documento de normas de ordenación y en los planos de ordenación para garantizar la adecuada conexión ecológica de los espacios naturales protegidos y la protección de valores del patrimonio natural existentes en el área funcional del Bilbao Metropolitano.

2.3.a.- Respecto a la protección de especies



dagokionez.

2.3.a.1- Antolamendu-arauen 17. artikulua babes bereziko kategoria ezartzen du "*flora eta fauna babestua duten eremuetarako*", 22. artikuluan aipatutako eremuen definizioaren arabera.

Ondare Naturala zaintzeko Zerbitzu honek egokitzen du kategoria hori leku horietan aplikatzea, eta zehaztu behar du, kudeaketa-plan espezifikoak dituzten fauna-eta flora-espezieez gain, arriskuan dagoen florari dagokionez ere aplikatuko dela arriskuan dauden espezieen arloan eskumena duen foru organoak zehazten dituen lekuetan, espezie kalteberen edo galzorian dauden espezieen kategorietan dauden aleak edo populazioak daudenean.

Kudeaketa-planak dituzten fauna-zona mehatxatuei dagokionez, antolamendu-arauen dokumentuan zehaztu behar da zein diren kategoria horretan sartuta dauden bisoi europarra eta arrain hirugarantza kontserbatzeko interes bereziko eremuak.

Eremu horiek honako hauek dira bisoiarentzat:

- Butroe ibaiaren arroko ibai eta erreka guztiak.
- Alonsotegiko udalerriko ibaiadar guztiak eta Kadagua ibaia bera.
- Zeberio ibaia eta Nerbioi ibaiaren arroko ibaiadar guztiak.

Eta hauek dira arrain hirugarantzarentzat:

- Gobela ibaia, Udondo ibaia, Asua ibaia eta

amenazadas.

2.3.a.1- El artículo 17 de las normas de ordenación establece la categoría de especial protección para las "*zonas con flora y fauna protegida*" según la definición de dichas zonas del artículo 22.

Este Servicio de Patrimonio Natural considera adecuada la aplicación de dicha categoría a esos lugares, debiendo especificarse que, además de aquellas especies de fauna y flora que cuenten con planes de gestión específicos, se aplicará también respecto a flora amenazada, a aquellos lugares, definidos por el órgano foral competente en materia de especies amenazadas, con presencia de ejemplares o poblaciones de especies que se encuentren incluidas en las categorías de Vulnerable o En Peligro de Extinción.

Respecto a las zonas de fauna amenazada que cuentan con Planes de gestión debe especificarse en el documento de normas de ordenación, cuales son las áreas de interés especial para la conservación del visón europeo y el pez espinoso, incluidas en dicha categoría.

Estas áreas son las siguientes para el visón:

- La totalidad de los ríos y arroyos de la cuenca del río Butroe.
- La totalidad de los afluentes y el propio río Kadagua en el municipio de Alonsotegi.
- El río Zeberio y la totalidad de sus afluentes en la cuenca del río Nervión.

Y son las siguientes para el pez espinoso:

- El río Gobela, el Udondo, el Asua y el Galindo,



Galindo ibaia, Kudeaketa Planarean zehazten den mugaketaren arabera.

Arriskuan dauden fauna eta flora babesteko eremu horiek guztiak, hainbestez, ondo definituta geratu behar dira antolamenduarauen dokumentuan, eta ez da beharrezkoa izango planoetara lekualdatzea, plano horien eskalak ez baitu ahalbidetzen eragindako azalerak behar bezala islatzea.

2.3.a.2 Lurralde Plan Partziala behin betiko onetsi aurretik nahitaezko txostenak erdiesteko beharra.

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala, Bizkaiko lurraldearen zati esanguratsu baten lurraldea antolatzeko tresna gisa, interes bereziko eremuetan bisoi europarraren berreskurapenean zuzeneko edo zeharkako eragin nabarmena duen plana da. Era berean, LPP honek eragin nabarmena du, zuzenean edo zeharka, arrain hiruarantzaren berreskurapenean, haren interes bereziko eremuetan.

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plana behin betiko onetsi aurretik, Bizkaiko bisoi europarraren kudeaketa-planaren 10. artikuluan eta arrain hiruarantzaren kudeaketa-planaren 7. artikuluan ezarritik dauden nahitaezko txostenak eskatu beharko dira (behin betiko onespenerako LPPren dokumentuari dagokionez) eta Foru Zerbitzu honek eman beharko ditu.

[118/2006 FORU DEKRETUA Foru Aldundiarena, ekainaren 19koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Bisoi Europarraren (Mustela lutreola) Kudeaketa Plana onesten duena.]

[186/2008 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 9koa, Bizkaiko Lurralde

según la delimitación realizada por el Plan de Gestión.

Todas estas zonas de especial protección de fauna y flora amenazada deben quedar por lo tanto bien definidas en el documento de normas de ordenación, no siendo necesario su traslación a los planos debido a que la escala de dichos planos no permite un reflejo adecuado de las superficies afectadas.

2.3.a.2 Necesidad de obtener Informes preceptivos antes de la aprobación definitiva del PTP.

El Plan Territorial Parcial del Bilbao metropolitano, como instrumento de ordenación del territorio de una parte significativa del territorio de Bizkaia, es un plan con repercusión apreciable, directa o indirecta sobre la recuperación de la especie visón europeo en las áreas de interés especial. Del mismo modo este PTP es un plan con repercusión apreciable, directa o indirecta, sobre la recuperación de la especie pez espinoso en sus áreas de interés especial.

Con carácter previo a la aprobación definitiva del Plan Territorial del Bilbao Metropolitano deberán solicitarse (respecto al documento del PTP para aprobación definitiva) y ser emitidos por este Servicio Foral los informes preceptivos establecidos en el artículo 10 del plan de gestión del visón europeo en Bizkaia y en el artículo 7 del plan de gestión del pez espinoso.

(DECRETO FORAL de la Diputación Foral 118/2006, de 19 de junio, por el que se aprueba el Plan de Gestión del Visón Europeo, Mustela lutreola), en el Territorio Histórico de Bizkaia.)

(DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 186/2008, de 9 de diciembre, por el que se aprueba el Plan de



Historikoan arrain hiruarantzaren (Gasterosteus aculeatus), Kudeaketa Plana onesten duena.]

Gestión del pez Espinoso, Gasterosteus aculeatus, en el Territorio Histórico de Bizkaia)

2.3.b.- Naturagune babestuei eta gainerako lurraldeekiko eta gainerako azpiegitura berdeekiko konektibitate ekologikoari dagokienez.

2.3.b.- Respecto a los espacios naturales protegidos y su conectividad ecológica con el resto del territorio y demás infraestructura verde.

LPP antolatzeko arauen dokumentuak berariaz jaso beharko du **naturagune babestu hauek** daudela, bai eta espazio horietan aplikatu beharreko araudiak ere, gainerako hirigintza-araudiaren eta lurralde-antolamenduaren gainetik daudenak.

El documento de normas de ordenación del PTP deberá recoger expresamente la existencia de los siguientes **espacios naturales protegidos** así como las normativa de aplicación en dichos espacios que prevalecen sobre el resto de normativa urbanística y de ordenación del territorio.

ES213003 Barbadungo itsasadarra eta ES213004 Astondoko dunak naturagune baestuek, Natura 2000 Sareko 200 metroko babes-eremu periferikoekin.

Espacios Naturales Protegidos ES213003 Ría de Barbadun y ES213004 dunas de Astondo, con sus respectivas zonas periféricas de protección de 200 m., de la Red Natura 2000.

(Indarrean dagoen arautegia: 34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotutako Kontserbazio Bereziko Eremuetarako (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onesten dituena, eta bai espazio bakoitzerako 2012an onetsi ziren neurri bereziei buruzko dokumentuak ere.)

(Normativa en vigor DECRETO 34/2015, de 17 de marzo, por el que se aprueban las normas generales para las Zonas Especiales de Conservación (ZEC) y Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) vinculadas al medio hídrico, así como los documentos de medidas particulares para cada espacio aprobados en el año 2012.)

Babes-eremu periferikoa 2015eko Dekretuaren bidez ezarri zen, eta KBEen kanpoko mugatik Barbadunen eta Astondon 200 metroko distantziara dagoen azalera hartzen du. Babes-eremu periferiko horiek kautelazko babes-araubide bat ezartzen dute, hiri-lurzoru finkatua soilik baztertzen duena.

La zona periférica de protección fué establecida por el citado Decreto del año 2015 y abarca la superficie comprendida desde el límite exterior de las ZEC hasta una distancia de 200 m. en Barbadun y Astondo, Las citadas zonas periféricas de protección establecen un régimen cautelar de protección que únicamente excluye al suelo urbano consolidado.

Uribe Kosta-Butroe eremua ere jaso behar da, bere balio naturalengatik kautelazko babes-erregimen baten pean dagoena: AGINDUA, 2012ko irailaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Uribe-Kosta-Butroe eremuko

También debe recogerse la zona Uribe Kosta-Butroe sometida a un régimen de protección cautelar por sus valores naturales: ORDEN de 3 de septiembre 2012, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se inicia el procedimiento de



Natura Baliabideak Antolatzeko Plana egiteko prozedurari hasiera ematen diona.

elaboración del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Uribe-Kosta-Butroe.

Gorbeiako Parke Naturala eta KBEa (ES2110009) eta Mundaka-Ogoño lurmuturreko Itsasadarreko Itsas Espazioa (ES0000490 HBBE) naturagune babestuak ez dira berariaz sartu behar antolamendu-arauetan, nahikoa baita horiek Lurralde Plan Partzialaren memorian islatzea, Lurralde Plan Partzialaren eremuan hondar-posizioa baitute, edo bestela, Lurralde Plan Partzialaren erregulazioak ez diolako gainerako naturagune babestuei bezain modu garrantzitsuan eragiten.

Los espacios naturales protegidos -Parque Natural y ZEC del Gorbea (ES2110009) y el Espacio marino de la Ría de Mundaka-Cabo de Ogoño. ZEPA (ES0000490) no es imprescindible que sean incorporados de forma expresa a las normas de ordenación, siendo suficiente su reflejo en la memoria del PTP, puesto que ocupan una posición residual en el ámbito del PTP o bien la regulación del PTP no le afecta de forma tan importante como al resto de espacios naturales protegidos.

2.4. Antolamendu-planoetan sartu eta aldatu beharreko gaiak, Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean dauden naturagune babestuen lotura ekologiko egokia eta natura-ondarearen balioen babesa bermatzeko.

2.4. Cuestiones a incluir y modificar en los planos de ordenación para garantizar la adecuada conexión ecológica de los espacios naturales protegidos y la protección de valores del patrimonio natural existentes en el área funcional del Bilbao Metropolitano.

2.4.1. Naturagune babestuen plano espezifiko berria.

2.4.1. Nuevo plano específico de espacios naturales protegidos.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da ez dagoela plano egokirik, deklaraturako naturagune babestuak eta haien babes-eremu periferikoak barne hartzen dituen, bai eta Uribe Kosta-Butroeko eremua ere, natura-ondareari buruzko legerian oinarritutako kautelazko babesa duen eremua.

Hay que destacar en primer lugar la ausencia de un plano adecuado que incluya tanto los espacios naturales protegidos declarados como sus zonas periféricas de protección, así como el citado espacio de Uribe Kosta-Butroe, un espacio con protección cautelar basada en la legislación de Patrimonio Natural.

Oso argi dago plano berri hori berariaz eta bereizita sartu behar dela, xehetasun-escala nahikoan (adibidez, 1:10.000, gatazka-eremuetako planoak bezala), eta hasierako onepenari dagokion dokumentazioan ez da agertzen, zeren eta 3.1 planoak ez baititu behar bezala jasotzen natura-ondareko gune babestuak.

La necesidad de incluir este nuevo plano de forma específica y diferenciada, a una escala de detalle suficiente (p.ej. 1:10.000 al igual que los planos de las áreas de conflicto -A.C.E.-) es muy clara y en la documentación de aprobación inicial no aparece, puesto que el plano 3.1 no incluye de forma adecuada los espacios protegidos del patrimonio naturales.



Planoan sartu beharreko hiru naturagune babestuak honako hauek dira:

-Barbadun itsasadarreko KBEa

-Astondoko duna KBE.

-Uribe-Kosta-Butroeren kautelazko babesa duen eremua.

Los tres espacios naturales protegidos a incluir en el plano son:

-ZEC ría de Barbadun

-ZEC duna de Astondo.

-Espacio con protección cautelar de Uribe-kosta-Butroe.

Plano horretan, hiri-hazkundeko perimetroak ere sartu behar dira (9. plano aldatuaren arabera definituak), eta horiek ezingo diete zuzenean eragin naturagune babestu horiei, ez eta haien babes-eremu periferikoei ere (Natura Sareari dagozkion kasuetan).

En este plano se deben incluir también los perímetros de crecimiento urbano (definidos según plano 9 modificado), que no podrán afectar de forma directa a los citados Espacios naturales protegidos, ni a sus zonas periféricas de protección (en los casos de Red Natura).

2.4.2. 3.1 Planoan sartu beharreko aldaketak

2.4.2. Modificaciones a introducir en el Plano 3.1

Zierbena Kostako interes naturaleko eremua islatu behar du, haren ezaugarri diren flora-eta paisaia-balioak sartzeko moduko hedadurarekin. Horrek esan nahi du eremu horretan sartuko direla Itsaslur aldea, Pobeñako iparraldean, eta Janeo Pico Ramos mendia, Muskizko auzo horren hegoaldean. Era berean, eremu horren barruan Luzero-Atxiga eremua Montaña eremuarekin (Kardeoko haranean zehar) lotzen dela grafiatu behar da.

Debe reflejar el área de interés natural de Zierbena Kosta con la extensión adecuada para incorporar los valores florísticos y paisajísticos que la caracterizan. Esto supone la incorporación a este área de la zona de Itsaslur al norte de Pobeña así como el monte Janeo Pico Ramos al sur de este mismo Barrio de Muskiz. Así mismo debe grafarse la conexión dentro de este área de la zona de Luzero-Atxiga con la zona de Montaña a través del valle de Kardeo.

2.4.3 3.2 Planoan sartu beharreko aldaketak

2.4.3 Modificaciones a introducir en el plano 3.2.

Somorrostro edo La Arena hondartzaren mendebalde hiri-hondartza izatetik atera behar da, ez baita hala, hirigunetik kanpo dagoelako; etorkizunean ere ez da aurreikusten hondartza hori hiri-hondartza gisa planifikatu daitekeenik, Natura 2000 Sareko naturagune babestu baten barruan baitago.

La parte oeste de la playa de Somorrostro o La Arena debe ser extraída de su condición de playa urbana pues, ni lo es al estar fuera de zona urbana, ni a futuro se la puede prever ni planificar como tal, puesto que se halla incluida dentro de un espacio natural protegido de la Red Natura 2000.



2.4.4 3.3 plano. Korridore ekologikoak eta gatazka-eremuak.

Zierbena Kostako natura-interes bereziko eremuaren eta Barbadun ibaiaren KBE Natura 2000 Sareko eremuaren arteko lotura ekologikoa ez da egokia.

LPPren lurralde-antolamenduko ereduaren helburu estrategikoetako bat da "ekosistemen jarraitutasun ekologikoa" eta "azpiegiturak paisaia integratzea" (antolamendu-arauen 11. artikulua).

Natura 2000 sarearen konektibitate ekologikoa, gainera, lurraldea antolatzeko tresnen bidez bermatu beharreko legezko lehentasuna da, eta, hainbestez, Lurralde Plan Partzial honetan korridore ekologikoen diseinu egokia egin behar da, konektibitate ekologiko horren funtzionamendua bermatzeko.

Illo horretan, esan daiteke korridore ekologikoak ez direla planoetan sar daitezkeen marrazki soilak, aldez aurretik funtzionamendu ekologikoaren bideragarritasuna behar bezain zehatz aztertu gabe.

Hala, Muskizko mendebaldean diseinatutako korridore ekologikoa, Barbadun izenekoa, ezin da nahikotzat jo, ezta egokitzat ere, Zierbena Kostako interes naturaleko eremuaren lotura ekologikorako, ez eta, zehazki, Barbadungo KBEarenerako ere. Ez da onargarria ingurumen-interes hori duten espazioen lurreko konexioa A-8 autobideak erabat eragozten duen lotura ekologiko hipotetiko batera finkatzea, edo, proposatzen den ibaiaren ertzean, autobideko zubien eta horien sarbideen azpian eta errepideen, hiri-espazioen, araztegien eta industrien bidez

2.4.4 El Plano 3.3. Corredores ecológicos y áreas de conflicto.

La Conexión ecológica del área de especial interés natural de Zierbena costa y del espacio de la Red Natura 2000 ZEC ría Barbadun no es la adecuada.

El PTP establece como uno de sus objetivos estratégicos del modelo de ordenación territorial la "continuidad ecológica de los diferentes ecosistemas" así como la "integración de las infraestructuras en el paisaje" (art. 11 normas de ordenación).

La conectividad ecológica de la red natura 2000 es además una prioridad legal que debe garantizarse a través de los instrumentos de ordenación del territorio y, por lo tanto, en este PTP se debe realizar un adecuado diseño de los corredores ecológicos que deben servir para garantizar el funcionamiento de dicha conectividad ecológica.

En este sentido se puede afirmar que los corredores ecológicos no son simples dibujos que pueden ser incluidos en los planos sin un análisis previo suficientemente detallado de la viabilidad de su funcionamiento ecológico.

Así, el corredor ecológico diseñado en la zona oeste en Muskiz, denominado Barbadun, no se puede considerar suficiente, ni adecuado, para la conexión ecológica del área de interés natural de Zierbena costa, ni específicamente para la de la ZEC de Barbadun. Fiar la conexión terrestre de espacios de este interés ambiental a una hipotética conexión ecológica que la existencia de la autopista A-8 imposibilita totalmente o, que se propone a través de un mínimo espacio en la margen del río, bajo puentes de autopista y sus accesos y constreñido por carreteras, espacios urbanos,



mugatuta dagoen espazio txiki baten bidez.

depuradoras e industrias no se considera acceptable.

Diseinu desagoki horrek, edo Barbadungo KBE naturagune babestuen konektibitate ekologikoari jaramonik ez egiteak, lehentasunezko habitatak eta espezieak hartzen dituen Natura 2000 Sareko leku horretan eragin negatiboa izan dezake, eta, hainbestez, ondorio horien 2.1 atalean esan bezala, Natura Ondarearen Zerbitzu honek txosten negatiboa egin behar du.

Este diseño inadecuado, o la falta de atención a la conectividad ecológica del espacio natural protegido ZEC de Barbadun, podría derivar en una afección negativa a este lugar de la red natura 2000 que alberga hábitats y especies prioritarios, lo que obliga, tal y como se ha dicho en el apartado 2.1 de estas conclusiones a la emisión de un informe negativo por parte de este Servicio de Patrimonio Natural.

LPP grafiatzen duen ustezko korridore ekologikoa osatu eta grafiatu egin behar da atal honetan definitutako Montaña-Las Carrerasesko beharrezko korridorearekin batera, gutxieneko funtzionaltasun ekologikoa izateko.

El supuesto corredor ecológico que grafía el PTP debe ser complementado y grafiado junto con el necesario de Montaña-Las Carreras definido en este apartado, para tener un mínimo de funcionalidad ecológica.

Halaber, Montaña A-8ko eremu hori konektibitatearako gatazka-eremu gisa grafiatu behar da, irtenbide posibleak sartze aldera, hala nola ekozubiak eta etorkizunean eraikiko diren azpiegituren proiektuak egokitzea (Las Carreras-Muskiz-Sopuerta 12. ardatzeko errepidea, Murrieta-Las Carreras inguruan).

También debe grafarse esta zona de Montaña A-8 como una área de conflicto para la conectividad, con la finalidad de proceder a incluir las posibles soluciones, como el ecoducto y la adaptación de los proyectos de las futuras infraestructuras a construir (carretera eje 12 Las Carreras-Muskiz-Sopuerta en la zona de Murrieta-Las Carreras).

Eremu honen konektibitate ekologikoaren galeran eragina izango duen beste gai bat hiri-hazkundearen arloaren definizioa bera da. Eremu horren definizioak KBEa babesteko eremu periferikoa barne hartzen du; horrenbestez, desconexio ekologikoa ezin da handitu.

Otra cuestión que incidirá en la pérdida de conectividad ecológica de este área es la propia definición del área de crecimiento urbano. La definición de este área incluye la zona periférica de protección de la ZEC, con lo que la desconexión ecológica no puede si no incrementarse.

Arestion adierazi den bezala, Las Carreras eta Murrieta artean, 14. antolamendu-planoan ageri den errepide berria edo Las Carreras saihasbidea sortzea, bai eta San Fuentestik portura doan mendealdeko sarbidea bera ere, KBEaren eta kostaldeko eremu natural horren isolamendu ekologikoa areagotuko

Tal y como se ha dicho, la creación de la nueva carretera o variante de Las Carreras que se grafía en el plano de ordenación 14 por esta zona entre Las Carreras y Murrieta, así como el propio acceso oeste al puerto desde San Fuentes, son actuaciones que incrementarán el aislamiento ecológico de la ZEC y de toda esta



duten jarduerak dira.

Horrenbestez, zerbitzu horren aurreko txostenean proposatu bezala (AO 28-2018), proposatzen da korridore ekologiko bat sustatzea hegoalderantz, Montaña, Mantres eta Murrieta aldera, eta eremu horretatik Meatzaldeko biotopoarekin eta Enkarterriko gainerako eremu naturalekin lotzea.

Korridore ekologiko horren funtzionaltasunerako, berriz ere "Montañoko ekobidea" sartzea proposatzen da, orain nahitaez, dagoeneko sortu baita Zierbena Kostako eremu naturalaren eta Barbadun KBEaren isolamendu ekologikoa areagotzen duen Teknologia Parkearen azpiegitura berria.

Montañoko ekobidea, beraz, gai nagusi bat da, garrantzi ekologiko handikoa, eta LPPk heldu beharko dio horri.

Antolamendu-arauen dokumentuan, **Gatazka-Eremuei buruzko 39. artikuluan** sartu behar da A-8 errepidean Montañon aipatutako gatazka-eremua, halako molde ez eranskinean adierazten diren ezaugarriak dituen ekobide bat eraikitze beharra ezarri baita (ezaugarri horiek jasota zeuden 2018ko txostenean).

Gatazka-arloei buruzko 39. artikuluan aldatu beharreko beste gai batzuk.

"Gatazka-eremuei buruzko 39. artikulua" horri dagokionez, esan behar da, eremu gatazkatsua gisa identifikatutako eremuetan "fauna-pasabideak" baino ez direla planteatzen. Zerbitzu honek (LPPren 2018ko aurrerapenari buruzko txostena) ondo dimentsionatutako ekozubiak sartzeko egin

área natural costera.

Se propone y se aporta la definición por lo tanto, al igual que se proponía en el anterior informe de este servicio (AO 28-2018), la potenciación de un corredor ecológico por el único espacio practicable hacia el sur, la zona de Montaña, Mantres, Murrieta y desde esta zona conectar a través de la zona minera con el biotopo de Meatzaldea y resto de las zonas naturales de Encartaciones.

Para la funcionalidad de este corredor ecológico se propone nuevamente la necesaria inclusión del "ecoducto de Montaña", ahora de forma imprescindible, pues ya se ha creado la nueva infraestructura del Teknologia Parkea que aumenta el aislamiento ecológico de la zona natural de Zierbena Kosta y de la ZEC Barbadun.

El ecoducto de Montaña pues, se trata de una cuestión central y de gran relevancia ecológica a la que el PTP debe atender.

En el documento de normas de ordenación se debe incorporar al **art. 39 Áreas de Conflicto** el A.C citada en la A-8 en Montaña, estableciéndose la necesidad de construcción de un ecoducto de las características señaladas en el anexo y que ya se recogían en el informe de 2018.

Otras cuestiones a modificar en el artículo 39 de áreas de conflicto.

Respecto a este "*artículo 39 áreas de conflicto*" se considera que sus objetivos son insuficientes al plantear muy poco más que "pasos de fauna" en las zonas identificadas como conflicto. La solicitud de este Servicio (informe sobre el avance del PTP del año 2018) de incorporar ecoductos bien dimensionados que permitan



duen eskaera alde batera utzi da, jarraitutasun ekologiko erreala ahalbidetzen luketenak, eta, beraz, behin betiko dokumentuan zuzentzea ezinbestekoa da Natura 2000 Sareko bi guneren jarraitutasun ekologikoa bermatzeko.

Beste alde batetik, artikuluko honen idazketak barne hartzen du garraio-azpiegituren arloan eskumena duen administrazioaren eta udalerrien arteko koordinazioa, funtzionaltasun ekologikoa bermatzeko neurriek ekiteko, baina ez du barne hartzen naturguneen eta espezie mehatxatuen arloan eskumena duen organoarekiko koordinazioa (Ondare Naturala zaintzeko Foru Zerbitzu hau), hark baloratu behar baitu funtzionalitate ekologiko hori. Gai hori ere 39. artikuluan sartu behar da.

2.4.5 9. plano. Hiri-hazkundeko perimetroak.

Plano honetan definitzen diren hiri-hazkundeko perimetroak aldatu egin behar dira Astondo dunentzako KBEaren hiru eremuetan, Barbadungo itsasadarren KBEan eta Uribe Kosta-Butroeren kautelazko babesa duen eremuan, honela:

-Astondoko dunak KBEan ez du eraginik izan behar KBE honetan, ez eta haren babes-eremu periferikoan ere, eta ez du naturgune hori hegoaldeetik inguratu behar, ezta Natura 2000 Sareko leku horren inguruan flora mehatxatua duten eremuetan ere.

-Barbadun itsasadarreko KBEan ez dira Pobeña auzoa, KBEaren mendebaldea (San Julian gunearen iparraldea) eta babes-eremu periferikoa hartu behar.

una continuidad ecológica real y no soluciones puntuales con escasa funcionalidad ha sido obviada, por lo que su corrección en el documento definitivo se considera una cuestión indispensable para garantizar la continuidad ecológica de dos espacios de la Red Natura 2000.

Por otra parte la redacción de este artículo incluye la coordinación de la administración competente en materia de infraestructuras de transporte con los municipios para acometer las medidas para garantizar la funcionalidad ecológica, pero no incluye la coordinación con el órgano competente en materia de espacios naturales y especies amenazadas (este Servicio Foral de Patrimonio Natural), que es quien tiene que valorar dicha funcionalidad ecológica. Dicha cuestión también debe ser incorporada al artículo 39.

2.4.5 Plano 9. Perímetros de crecimiento urbano.

Los perímetros de crecimiento urbano definidos en este plano deben ser modificados en los tres ámbitos de la ZEC dunas Astondo, ZEC ría de Barbadun y espacio con protección cautelar de Uribe Kosta-Butroe, de la siguiente forma:

-En la ZEC dunas de Astondo no debe afectar a esta ZEC ni su zona periférica de protección, ni rodear a este espacio natural por su zona sur, ni afectar a las zonas con flora amenazada aledañas a este lugar de la Red Natura 2000.

-En la ZEC ría de Barbadun no debe abarcar el barrio de Pobeña ni la zona oeste de la ZEC (norte del núcleo de San Julian) ni a su zona periférica de protección.



-Uribe Kosta-Butroe eremuan, kautelazko babes-araubidearen mende dauden lurak kanpoan utzi behar dira.

-En el espacio Uribe Kosta-Butroe, debe excluir los terrenos sometidos al régimen de protección cautelar.

Beste alde batetik, 9. plano hori aldatu egin behar da, paisaia-intereseko eremu bat baztertzeko; izan ere, eremu hori ezin da izan hirikoa, ez ingurumen-balioengatik, ez kultura-balioengatik, ez Ortuellako eta Abanto-Zierbenako udalerrien plangintzaren arabera udal eta udalaz gaindiko hirigintza-araudiagatik ere.

Por otra parte este plano 9 debe ser modificado también para excluir una zona de interés paisajístico que no puede ser urbana ni por sus valores ambientales y culturales, ni por normativa urbanística municipal y supramunicipal según el planeamiento de los municipios de Ortuella y Abanto-Zierbena.

Hala, igorritako 9. planoak La Corta de Concha II edo Bodovalle eremua eta La Barga meatze-eremua barne hartzen ditu, biak ere araututa eta Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako *Meatzaldeko ingurumena babesteko eta leheneratzeko Plan Berezian* sartuta (BAO, 2000ko maiatzaren 10ekoa). Eremu horretan badira, halaber, babes kulturalako beste araudi espezifiko batzuk, bai eta interes geologikoko leku gisa duten garrantziari buruzko balioak ere (Eusko Jaurlaritzaren Interes geologikoko Lekuen inbentarioan sartuta). Horiek guztiek kontserbazio- eta babes-beharra azpimarratzen dute, eta babes bereziko kategoria ematen diote leku horri.

Así, el plano 9 remitido incluye la zona de La Corta de Concha II o Bodovalle, así como la zona minera de La Barga, ambas reguladas e incluidas también en el *Plan Especial de protección y recuperación ambiental de la Zona Minera*, aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia (BOB 10 de mayo 2000). Sobre dicho espacio concurren también otras normativas específicas de protección cultural, así como valores referidos a su importancia como lugar de interés geológico (incluida en el inventario de LIGs del Gobierno Vasco), que inciden en la necesidad de conservación y protección, dotando a este lugar de la categoría Especial Protección.

Doitzen diren hiri-hazkundearen perimetro berriak espazio naturalen plano berrian, hau da, 3.1, 3.2 eta 3.3 planoetan eta beharrezkoa den gainerako planoetan islatu beharko dira.

Los nuevos perímetros de crecimiento urbano ajustados se deben reflejar tanto en el nuevo plano de espacios naturales, como en el 3.1, en el 3.2 y en el 3.3, así como en el resto de planos en los que sea preciso.

2.4.6 14. planoak. Bide-azpiegiturak.

2.4.6 Plano 14. Infraestructuras viarias.

12. ardatza. Las Carreras-Muskiz-Sopuerta bide-tarte berria

Eje 12. Nuevo tramo Las Carreras-Muskiz-Sopuerta

Azpiegitura berri hori eta A-8 bera markatu behar dira Las Carreras iparraldean, azpiegitura berdearekin gatazka argia dagoen eremu gisa (Zierbenako interes naturaleko

Se debe marcar esta nueva infraestructura y la propia A-8 en esa zona al norte de Las Carreras como un área de conflicto claro con la infraestructura verde (Área de interés natural



eremua eta Barbadungo itsasadarra).

de Zierbena y ZEC ría de Barbadun).

11. ardatza. Porturako mendebaldeko sarbidea

Eje 11 Acceso oeste al puerto

Balizko trazadura berri hori azpiegitura berdearekin gatazka-eremu gisa sartu behar da, aurrekoa bezala.

Se debe incorporar este nuevo posible trazado como un área de conflicto con la infraestructura verde, al igual que el anterior.

Beste alde batetik, Erletxeta eta Larrabetzu arteko gatazka-eremua A-8 autobideak Erletxeta eta Galdakao artean hartzen duen eremura ere hedatu behar da.

Por otra parte, el área de conflicto marcada entre Erletxeta y Larrabetzu debe extenderse también a la zona ocupada por la A-8 entre Erletxeta y Galdakao.

2.4.7 28. plano. Paisaia-intereseko eremuak

2.4.7 Plano 28. Áreas de interés paisajístico

PIBE 01 Zierbena

AEIP 01 Zierbena

Aldatu egin behar da, Barbadun KBEa, Janeo Ramos mendia eta Itsaslur eremua gehitzeko, horiek guztiek aparteko balioa duten paisaia-balioak eta flora-balioak baitituzte.

Debe ser modificada para incorporar la ZEC Barbadun, el monte Janeo Ramos y el área de Itsaslur, lugares todos ellos con unos valores paisajísticos y florísticos de valor extraordinario.

PIBE. Meatze-paisaia interesgarriak

AEIP. Paisajes Mineros de interés

Antolamendu-arauen 92. artikuluan eta 28. planoan eremu berri bat sartu behar da, funtsean bat datorrena Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako Meatzaldeko ingurumena babesteko eta berreskuratzeko plan bereziaren bidez araututako eremuarekin.

Se debe incluir en el art.92 de las normas de ordenación y en el plano 28, una nueva área que se corresponde básicamente con el área regulada mediante el plan Especial de protección y recuperación ambiental de la Zona Minera aprobado por la DFB.

2.4.8 Paisaiaren kalitate-helburuei buruzko 30. plano.

2.4.8 El plano 30 de objetivos de calidad paisajística.

Alde batera utzi behar da Abanto-Zierbenako Bodovalle edo Concha II meategiaren kanpoko mozketak, paisaia lehengoratzeko leku gisa (betelanak edo leheneratze-lanak baztertzea betelane edo soberakinen gordailuen bidez), kultura-interes babestuko ondasuna delako eta gaur egun kultura-

Debe excluir la corta exterior de la mina de Bodovalle o Concha II en Abanto-Zierbena como un lugar a restaurar paisajísticamente (exclusión de relleno o de restauración mediante rellenos o depósitos de sobrantes) puesto que se trata de un bien de interés cultural protegido y que en la actualidad cuenta



ondare eta ingurumen-ondare garrantzitsua kontserbatzeko eta zabaltzeko helburua duelako, LPP honetako beste atal batzuetan nabarmentzen den bezala (Ekoetxea, Begiratoki bat eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa).

Beste alde batetik, meatze-mozketa horretan hainbat hegazti-espezieren habiak egoten dira, hala nola *Falco peregrinus*, *Caprimulgus europaeus*, *Corvus corax*, etab., eta Geodibertsitaterako interes berezia duen interes geologikoko leku bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko garaiera txikieneko gunea izateaz gain.

2.5 XII. eranskina, antolamendu-arauei buruzkoa. Eraginkortasun loteslearen taula.

-Trapagarango, Ortuellako eta Abanto-Zierbenako Meatzaldeko Ingurumena Babesteko eta Berreskuratze Plan Berezia jaso behar du lotesle gisa.

Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako hirigintza-plan berezia da, eta ingurumena, paisaia eta kultura babesteko eduki handia du, meatzaritzako paisaia eta ondarea kontserbatzeko araudia ezartzen baitu. Alde horretatik, adierazi behar da LPPren hainbat dokumentutan Plan Berezi horren existentzia eta garrantzia jasotzen dela, eta, are gehiago, hasierako onespenerako dokumentu honen datu positibo gisa, Plan Berezi hori Las Calizas izeneko eremura (Abanto-Zierbena) zabaltzeko LPParen proposamena gehitu da.

2.6 FR202 eranskina. Zortasunak eta Kostaldeei buruzko Legea.

Aldatu egin behar da, Zierbena-Muskiz eremuko mugaketa berria islatzeko, Barbadungo KBEko eremu periferikoaren

con un objetivo de conservación y divulgación de patrimonio cultural y ambiental de relevancia tal y como se resalta en otros apartados de este PTP (presencia de una Ekoetxea, de un mirador y del Museo de la Minería del País Vasco).

Por otra parte en dicha corta minera se produce la nidificación de diversas especies de aves, tales como el *Falco peregrinus*, *Caprimulgus europaeus*, *Corvus corax*, etc... y es un LIG Lugar de interés geológico de especial interés para la geodiversidad, además de ser el punto a menor altitud de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.5 Anexo XII de las normas de ordenación. Cuadro de eficacia vinculante.

-Debe incluir como vinculante el Plan Especial de Protección y recuperación ambiental de la Zona Minera en los municipios de Trapagaran, Ortuella y Abanto-Zierbena.

Se trata de un plan especial urbanístico aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia y que tiene un gran contenido de protección ambiental, paisajística y cultural al establecer normativa para la conservación del paisaje y patrimonio minero. En este sentido hay que señalar que en distintos documentos del PTP se recoge la existencia e importancia de dicho Plan Especial e incluso, como dato positivo de este documento de aprobación inicial, se incorpora la propuesta del PTP de ampliar este Plan Especial al área de Las Calizas en Abanto-Zierbena.

2.6 Anexo FR202. Servidumbres y Ley de Costas.

Debe modificarse para reflejar el nuevo deslinde en la zona de Zierbena-Muskiz dentro



barruan.

2.7 Udalerriei eragiten dien agiria aldatu egin beharko da, aurreko aldaketen artean ezinbestekoak diren oinarritzko gaiak jasotze aldera.

Eranskina.

Montaño ekozubia A-8ko konektibitaterako gune kritikoan. Korridore ekologikoa: Zierbena-Barbadun itsasadarreko KBE natura-intereseko eremua - Meatzaldeko biotopoa

Neurri ertaineko ekobidea da, Abantoko A-8 errepidearen korapiloaren eta Barbadun gaineko A-8 autobideko zubirako jaitsieraren hasieraren artean kokatzekoa. Fauna iragazkortzeko obra horrek LPPn sartu beharreko lehentasuna izan behar du; izan ere, natura-intereseko kostaldeko eremuen eta Meatzaldeko Biotopoaren eta Enkarterriko gainerako eremu naturalen arteko lotura ekologikoko gune bakarra da. Gaur egun, Zierbenako natura-intereseko eremua ekologikoki isolatuta dago, A-8 autobideko hesia eta haren inguruko hiriguneak eta industrialdeak direla eta.

Horrenbestez, beharrezkoa da iragazkortasun ekologikoko jarduketa hori LPPn sartzea.

Kokagunea: Abanto-Zierbena udalerriko 2. irudian ikus daiteke, Montaño-Mantres-Murrieta mendiaren oinean.

Luzera: gutxienezkoa, 200 metro. Luzera ideala: 500 metro.

de la zona periférica de la ZEC de Barbadun.

2.7 El documento de afecciones a los municipios deberá ser modificado para recoger las cuestiones básicas imprescindibles entre las modificaciones anteriores.

Anexo.

Ecoducto Montaño en punto crítico para conectividad A-8. Corredor ecológico Área de interés Natural Zierbena-ZEC ría de Barbadun -Biotopo de Meatzaldea


Se trata de un ecoducto de medianas dimensiones a ubicar entre el nudo de la A-8 en Abanto y el inicio de la bajada hacia el puente de la A-8 sobre el Barbadun. Esta obra de permeabilización para la fauna debe ser una prioridad a incluir en el PTP pues es el único punto de conexión ecológica todavía factible entre las áreas costeras de interés natural y la zona del Biotopo Meatzaldea y demás zonas naturales de Encartaciones. En la actualidad el área de interés natural de Zierbena se encuentra aislada ecológicamente por la barrera de la A-8 y las zonas urbanas e industriales que la rodean.

Es necesario por lo tanto que esta actuación de permeabilización ecológica sea incorporada al PTP.


Ubicación: se refleja en la imagen 2, municipio de Abanto-Zierbena, al pie del monte Montaño-Mantres-Murrieta

Longitud: mínimo 200 metros. Ideal 500 m.


Mapas e Imágenes/Mapak eta irudiak



Corredor ecológico/lgarobide ekologikoa



Mapa de la zona de la A-8 a permeabilizar / A-8an ekoduktoa egin behar den lekua



Barreras totales para fauna vertebrada terrestre y ecoducto necesario en Montaño. / lurreko faunarentzat dauden hesiak eta ekoduktoa eraiki behar den lekua.



Vista del punto de la A-8 a permeabilizar mediante el ecoducto / A-8 autobidean ekoduktoa eraiki behar den lekuen irudia.

Sin./Fdo.: AITOR URIARTE BAUTISTA - 2022-01-26

BIODIBERTSITATEA ETA PASAIA ZAINTEKO ATALA-REN NATURGUNEEN INGURUMEN-KALITATEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
TÉCNICO/A SUPERIOR DE CALIDAD AMBIENTAL DE ESPAC.NATURALES DE SECCIÓN DE BIODIVERSIDAD Y PAISAJE

Sin./Fdo.: IÑAKI BENITO IZA - 2022-01-26

BIODIBERTSITATEA ETA PASAIA ZAINTEKO ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE BIODIVERSIDAD Y PAISAJE

Sin./Fdo.: ANTONIO GALERA COLETO - 2022-01-27

NATURA ONDAREA ZAINTEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PATRIMONIO NATURAL

